

SEIGARREN GAIA: KONSTITUZIO AUZITEGIA

(Liburuko 1.bolumena, 10.kapitulua 279.or-328.or)

6.1.KONSTITUZIONALITASUN KONTROLA. KONSTITUZIO AUZITEGIA

- Konstituzioaren gorentasuna eta Konstituzionaltasun-kontrola egikaritzen duen organo gorena da konstituzio auzitegia, KALO-k xedatzen duen moduan. Konstituzioak diona konstituzio auzitegiak argitzen du, horrek ondorio handiak ditu eta lotuta dago ea jurisprudentzia den edo izan ahal den zuzenbidearen iturburua. Konstituzio kontrakotasun kontrola oinarrituta dago konstituzioaren gorentasunaren ideian, konstituzioa lege nagusia den aurrean, konstituzioa izaera juridikoa duela, ikusiko dugun bezala Europar mendetan zehar uste izan denaren kontra gaur egun ez dugu zalantzarik konstituzioa ez dela soilik testu politiko bat baizik eta izaera juridikoa duen testu bat ere badela, konstituzioa lege nagusia baldin bada hori esan nahi du gainerako lege edo arau juridiko guztiak baldintzatuko duela, baldintzatuko ditu arau juridiko guztien baliotasuna; konstituzioaren kontra doan edozein arau, arau baliogabea izango dela eta ordenamendu juridikotik baztertuta izango da, hori horrela izan dadin behar dugu gorentasun juridiko horren bermea emango duen organo bat eta hori azken burua konstituzio auzitegia da, zein konstituzioaren nagusitasun juridikoa bermatzen du. ***“Eremu juridikoan ez dago nagusitan juridikorik hori bermatzeko kontrol biderik ez dagoen neurrian”***. Epaila ohikoek bermatzen dute legezkotasuna, Europar epaileak dira legezkotasunezko epaileak, nola aplikatu behar dituzten legeak arau juridikoak dira, era zehatzean, lege formalak, parlamentuak sortzen dituen arau motak. Haiek duten helburua da legeak ezar daitezela. Europar historikoki izan da posible legearen nagusitasuna epaile egokiak zeudelako legea aplikatzeko, Europar epaileak legearen mende zeuden historikoki, legea zen haien zatuk ukiezina eta bermatu behar zuten legea kolokan jar ez zedin. Epailak bermatu behar zuen legea aplikatua izango zela, epaileek ezin zuten legea kolokan ipini. Europar konstituzioak testu politiko hutsak ziren, nola ez zegoen epaile bat ere ez konstituzioaren nagusitasuna bermatu nahi zutena, Estatu Batuetan aldiz bai (Marbury vs Madison auzia). Europar konstituzioaren nagusitasun juridikoa bermatzeko deuseztatu ditzake konstituzioaren kontra doazen legeak, erabat zuzen lotuta dago. Konstituzio kontrakotasun kontrol bat ezartzen denean soilik izango da konstituzioaren nagusitasuna. Estatu batuetan ez dago inolako arau zuzenik esaten duena auzitegi gorenak azkenean legeen konstituzionaltasuna kontrola dezakenez, baina bai sortu zuen ideia hori, beraz epaileek konstituzio kontrakotasuna kontrola dezakete, hortik sortu zen gaur dituzten dugun eredu barreiatua, edozein epaile ohikoak edo arruntak erabaki dezake lege bat aplikatu gabe ustea haren ustez konstituzioaren kontra doalako. Europar ideia hau mende batzuk geroago onartzen da hau, legegileak sortzen duen lege guztiak kontrolatuak izan daitezkeela, mendeetan errotuta zegoen ideien kontra zehar, oso ideia arrotza zen Europar eta asko kostatu zen onartzea eta oro har barreiatu zen Europar zehar herrialde batuetan beste batuetan ez.

Kelsen-ek izan zen ideia hori proposatu zuena, lehen mundu gerra ondoren, oso garrantzitsua, Austrohungar inperioa desegin zen, eta Austria federala agertzen denean 1919.urtean Hans Kelsen-i konstituzio aurreproiektu bat egiteko agindu zion Karl Renner kantzilerrak. Konstituzio horren zaintzarako Auzitegi Konstituzionalaren idea sartzan du Hans Kelsen, parlamentuak sortutako legeak eta konstituzioaren arteko bateragarritasuna bermatzeko. Sistema honetan auzitegi bakar eta berezi batean uzten du konstituzio kontrakotasunaren kontrola egiteko ahalmena. Konstituzio kontrakotasun kontzentratua sortzen da hemen, legea aplikatu gabe utzi ezean, legea indar gabe ere utzi dezakena. Salbuespen batzuk kenduta (Suitza, adibidez), neurri batean aurrera eramana da Kelsen-en eredua. Eredua honetan Konstituzio Auzitegia monopolioa dauka konstituzioaren aurkakoak diren legeak deuseztatzeke.

- Konstituzionaltasun-kontrola eta Konstituzio Auzitegia. Kontrol sistema *bildua*. Konstituzioaren lege-izaera eta epaile ohikoen jardura: epaile ohikoek konstituzionaltasun-kontrola burutzen dute? Konstituzionaltasun-kontrola eta Konstituzioaren kontrakoak diren arauen deuseztasuna. Neurri batean edo bestean epaile guztiek egiten dute aplikatu behar duten legeen konstituzionaltasun kontrola baina mugekin, ezin dute legea deuseztatu ezta aplikatu gabe utzi, baizik eta konstituzio auzitegiak beste kasu "berdin" batean egindako interpretazioa jarraitu behar dute edo bestela konstituzio auzitegiari konstituzio kontrakotasun galdera egin. Konstituzio auzitegiak sortutako jurisprudentzia hau da erabaki bat ematen duenean, ezartzen du konstituzioaren esanahia zati horretan eta beste epaile guztiek jarraitu behar dute konstituzio auzitegiaren epaiak, nola epai araubideak dira, indarrean dagoen zuzenbidea finkatzen dute eta epaileak eta auzitegiak menderatuta daude konstituzio auzitegiak emandako erabakiengatik. Horrek ez du esan nahi konstituzio auzitegiaren jurisprudentzia beste zuzenbidearen iturburuekin parekatu dezakelik, baina bai oso iturburu berezia. Kontuan izan behar dugu zuzenbidearen iturburuen sortzailerik handiena parlamentua dela, sortzaile librea da, egokia izan edo ez izan baina juridikoki konstituzioak xedatzen duenarekiko edozein gauza aproba ditzake parlamentuak. Interpretaziorako eremu zabal bat dauka konstituzioak (berdintasun printzipioa, askatasuna...).

⇒ Konstituzio Auzitegiaren monopolioa: Konstituzioaren kontrako lege-mailako arauak deuseztatzea

- Arauen konstituzionaltasun-kontrolaren balio araugilea

- Konstituzio Auzitegiaren epaien balio araugilea → Konstituzio bera ukitzen duen eginkizun berritzailea. Epai *araugileak*.

Ezaugarriak: Konstituzioari lotuta edo horrek baldintzatuta; iturburu *osagarria*; zati-izaera.

AEB-ko konstituzioa konstituzio zaharra eta laburra da (printzipio orokorretan geratzen da), gurea adibidez konstituzio berriagoa, luzea, argia eta zehatza da. Esan ohi da AEB-ko auzitegi gorena hileroko biltzen direnean konstituzioa berridazten dutela; (oso muturreko kasua).

Auzitegiek jurisprudentziaren bidez indarrean dagoen zuzenbidea finkatzean ez dute betirako finkatzen, nola, auzitegiek alda dezakete baina ezingo dute aldatu inolako argibiderik gabe; konstituzio auzitegiak eta halako auzitegi guztiek behartuta sentitzen dira nolabait erakusteko une zehatz batean egiten duten interpretazioa auzitegi horretakoarekin lotuta “egon behar delako”; aldatu beharra badago justifikatzen dute azaltzeko zergatik izan daiteke orain beste interpretazio ezberdina lehen emandakoarekin. Konstituzioak esaten duena nola interpretatu behar den esaten du auzitegi konstituzionala. Espainiako konstituzioa aldarrikatzean bazegoen Europar esperientzia konstituzional handia eta konstituzioaren egileak baliatu ziren gainerako esperientzietan. Alemaniako konstituzioaren ereduak izan zen batez ere hartu zen ereduak.

Konstituzio Auzitegia Espainiako Konstituzioan (Espainiar Konstituzioaren 159 art. eta hurrengoak)

- 12 epaile edo magistratu osatuta, Erregeak izendatuta (4 kongresuak hautatuak, 4 Senatuak (Autonomia Erkidegoen Biltzarrek aurkeztutakoen artean), 2 Gobernuak eta 2 Epai Boterearen Kontseilu Nagusiak. Inguruko ohiko sistematan hautatzen den bezala edo antzera egiten da. Horrek sor ditzake arazoak eta gurean bereziki azken urteetan sortu ditu. Hau da gehien erabili den ereduak. AEBko ereduak adibidez nola ez dago konstituzio auzitegirik, auzitegi gorenean egiten da konstituzioaren interpretazioa eta herrialdeko presidente edo lehen ministroak hautatzen ditu, bizitza osorako kargua da eta orduan ez dira guztiak une berean aldatzen.

- Gaitasun-sonaren jabe diren legegariak, 15 urtetik gora lanbidean jardunak.

- 9 urterako izendatuak; herenka berrituko direnak hiru urtetik behin. Independentek eta mugiezinak.

- Bateriaezintasun-eskakizun zorrotzak: epaileei eskatzen zaizkienaz gain (Espainiar Konstituzioaren 159.4 art.). Ezin dute beste lanik egin, guztietarako bateraezinak dira. Baina Auzitegi konstituzionaleko epaileei dagokionez ez besteei gertatzen zaie bezala, posiblea da inolako arazorik gabe alderdi bateko edo sindikatu bateko kidea izatea, ezin duena izan da alderdi politiko edo sindikatu bateko burua.

- Espainiako lurralde osoan du epai-ahalmena (jurisdikzioa). Arazoa da, nola bereizi behar da auzitegi gorena eta auzitegi konstituzionalaren eremuaren artean; lege organikoak esaten duen bezala konstituzio auzitegia da konstituzioaren interpretatzaile gorena. auzitegi guztiek errespetatu eta bete behar dute konstituzio auzitegiak konstituzioaren inguruan egiten duen interpretazioa.

- Konstituzioaren interpretatzaile gorena (KALO, 1.1 art.); Konstituzio Auzitegiak “zedarrituko du bere jurisdikzio eremua” eta haren kontra ezin dira eskumen-gatazkarik aurkeztu (KALO 4.1 art.). Horregatik auzitegi gorenen eta auzitegi konstituzionalaren artean zegoen liskarra “kutsatuta” zegoen nola liskarrean parte hartzen zuen auzitegi konstituzionala liskar horretan zen arbitroa (Alemaniako Kompetenz-Kompetenz) .

Konstituzio auzitegiaren epaien ez dute errekurtsorik... barneko ordenamenduan, Europako giza eskubideen aurrera joateko aukera bai egon daiteke (nazioarteko auzitegietakoa errekurtsioak, giza eskubideen bermeari inguruan).

- Konstituzio Auzitegiaren ebazpenak ezin epaituko ditu ezein epailek (KALO 4.2 art.)

- Eskumenak: (Halako bat sartuko da azterketan; ondo sakondu)

Batzuk dira konstituzioak zuzenean sartzen dituen eskumenak eta besteak konstituzioak zabalik uzten du konstituzio auzitegiari lege organiko bidez eskumenak emateko.

- a) Konstituzio-kontrakotasun errekurtsioa edo eskabidea.
- b) Epaileek igorritako konstituzio kontrakotasun arazoa.
- c) Herritarren oinarrizko eskubideen urraketan kontrako babes-errekurtsioa edo eskabidea.
- d) Eskumen-gatazkak, hala Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen artekoak nola Autonomia Erkidegoen artekoak.
- e) Konstituzioak edo lege organikoek esleitzen dizkioten gainerakoak:
 - **Nazioarteko Itunen konstituzionaltasun kontrola (Espainiar Konstituzioaren 95.2 artikulua).**
 - **Estatuaren konstituzio-erakundearen arteko gatazkak. Parlamentuaren eta gobernuaren arteko eskumen gatazkak, adibidez.**
 - **Autonomia Estatutuen proiektuen aldeko aurreko konstituzio-kontrakotasun kontrola.** Hau bada, eta oso garrantzitsua da kontuan izatea duen esanahiagatik, konstituzio kontrakotasunean dagokionez hau izango da bakarra aldeko aurretik egiten dena; hau da, autonomia-estatutua indarrean sartu baino lehen egiten zaio konstituzio kontrakotasuna. Halako estatutua ezin da indarrean sartu konstituzio auzitegiak epaia eman arte; hau da KALO-k ezarri duen prozedura bat, lehen aldiz onartzen denean, antzeko kontrol bat aipatzen da, lege organikoaren aldeko aurretiko bermea kontrola aurkezten da. Estatutua lege organikoa delarik. Lege organiko bat soilik aurrera atera daiteke kongresuaren gehiengo absolutuarekin; gobernuak gehiengo absolutua izatean lege organikoak bere erara egiten zituen eta oposizioak konstituzio kontrakotasun errekurtsioa erabiltzen zuen hauek kontrolatzeko baina nola indarrean zeuden eta konstituzio auzitegiak epaia emateko 2 urte behar dituzenez +/-, gehienetan legealdia amaituta egoten zen; autonomia estatutuekin ez zen hau gertatzen nola indarrean sartu baino lehen egiten zaie konstituzio-kontrakotasun kontrola. Autonomia estatutuak beraz erreferendumeraren eramanak izan baino lehen konstituzio auzitegiak egin behar die konstituzio kontrakotasun kontrola eta beraz horrela herritarren eskuetan jarriko da kontrolaturiko estatutu bat.

- **Lege-indarra ez duten Autonomia Erkidegoek onetsitako erabakien kontrako eskabidea (KALO-ren V.Titulua).** Hau nahiko arrotza da, nola, **Konstituzio Auzitegiak ez du prozedura hau zuzenean ezartzen.** Honekin zuzenean erlazionatu dezakegu Konstituzioaren 161.2.artikulua. bide honek boterea ematen dio estatuko gobernari autonomia erkidego baten xedapen edo ebazpen baten aurkako errekurtsioa aurkezten duenean gelditua geratzea, gehienez 5 hilabetetan konstituzio auzitegiak zuzenean erabaki gabe, 5 hilabete horiek baino lehen konstituzio auzitegiak erabaki espresu bat eman behar du.

Xedapenak: lege indarra dutenak (legea) eta lege indarra ez dutenak (dekretua).

Ebazpenak: erabakiak.

Bi hauek geldiarazi dezake konstituzioaren 161.2.artikuluaren arabera 5 hilabetez konstituzio auzitegiak epaia eman arte; baina aldiz konstituzio auzitegiak erabakitzen badu ez dela geldiarazita geldituko indarra izango du epaia arte. Estatua denean konstituzio kontrakotasuna jartzen denean eta konstituzioaren 161.2.artikulu aipatzen duenean automatikoki geldituko da geldiarazita konstituzio auzitegiak erabaki arte. Askotan geldiarazita gelditzen da eta epaia ematen denean erabakitzen da indarrean sartu behar dela.

Konstituzioak ezartzen du 161.2.artikuluan, estatuko gobernuak auziperatzen dituen Konstituzio Auzitegiaren aurrean autonomia erkidegoren batek sortutako xedapen edo ebazpenen bat automatikoki geldituko dela geldiarazita.

Nola interpretatua izan zen hau eremu akademikoan? 161.1.artikuluaren a, b eta c pasartetan 161.2.artikuluan halako geldiaraztea gertatze bada interpretazio sistematiko hau lotuta dago lehen aipatutako pasartetan; hau da lehenbiziko pasartetan lotutako horretako prozedura baten bidez errekurritutako autonomi erkidego baten xedapen edo ebazpen bat geldiarazita gelditzea. Honek indar handia ematen dio gobernari, estatuaren eskuetan botere ikaragarria jartzen da autonomia erkidegoek sortutako xedapen eta ebazpenak indar gabe usteko.

Zer egiten du KALO-k V.titulu horretan? Artikulu horren esparrua erabat zabaltzea.

- **Toki-autonomiaren defentsarako eskumen-gatazkak.**
- **Foru-autonomiaren defentsarako eskumen-gatazkak.**
- **Lurralde historikoek sortutako arau fiskalen konstituziotasun-kontrola.**

Honekin lotuta baztertu egin da gurean beste batzuetan Konstituzio Auzitegiari esleitutako eskumenak hala nola epaiketa politikoak egiteko eskumena, esaterako, Alemanian errepublikako presidenteari epaiketa egiteko du eskumena, gurean aldiz hori ezin da egin eta Konstituzio Auzitegiak duen ahalmen gorena lege-indarra duten xedapenen kontrola izan da.

Konstituzio Auzitegiaren antolaketa

- Osoko bilkura, Gelak eta Sailak.
- Antolaketa eta eskumen-jarduna:
 - **Osoko Bilkurak:** lege indarra duten arauen konstituzio kontrakotasuna ezartzea edo adieraztea. Ondorio bat dauka, osoko bilkura izango da soilik lege indarra duen arau bat konstituzioaren kontrakoa izateagatik deusezta dezakenak; gelek eta sailek ezingo dute horrelakorik egin. Organo bakarra egiteko eskumena duena.
 - **Gelek** (2 Gela): babes-errekurtsoak ebaztea. Osoko bilkurak ere eman ditzake epaiak babes errekurtsuari buruzkoak, kasu zehatz batean.
 - **Sailek** (2 Sail Gela bakoitzean): prozedura-arazoak; konstituziokontrakotasun errekurtsoen eta babes-errekurtsoen bideragarritasuna onartzea edo gaitzestea. Prozedurari buruzko erabakiak hartuko dute, normalean ez dute epaiak emango, probidentziak emango dituzte.

Konstituzionaltasun-kontrolerako auzi-prozedurak

Lege indarra dutenen konstituzio kontrakotasun kontrolerako. Zeharkako errekurtsua izango da eredu barreiatuekin lotura izango du kontrol bidean; honako sistemetan edozein epaile gauza dezake lege indarra daukatenen konstituzio kontrakotasun kontrola (edozein epaileek auzi bat erabakitzeko erabili behar duen lege bat aplikatu behar duela eta ikusten du lege hori konstituzioaren aurkakoa dela aplika gabe utz dezake). Errekurtso zeharkakoa gurean epaile arrunt edo ohikoek ezin dute lege bat indargabetua konstituzioaren kontrakoa delako eta beren egin beharrekoa konstituzio auzitegiari konstituzio kontrakotasun galdera igorri behar dio; Kelsen-en eredua, epaile arrunt edo epaile ohikoek lege bat aplikatu gabe utzi ezean bakarrik bide bat izatea planteatu zuen auzitegi bakar bat izatea horretarako eta horri igorri ahal izatea errekurtsu zuzena (bakarrik kontrolbide hori proposatu zuen; legea sortu eta berehala kontrol eredu bat sortu ahal izatea); horregatik jatorrian guztiz bestelakoak/diferenteak ziren eredu barreiatua eta bildua; baina gauzak aldatu dira.

Kelsen-en ereduan bakarrik zegoen une bat legeen konstituzio kontrakotasun zuzena planteatzeko, legea sortu eta berehala hain zuzen ere eta horretarako hainbat organo zeuden bereziki gobernua eta parlamentua, hori ez bazen egiten legea sortutako momentuan, gobernua edo parlamentuak ez bazuen legea eramaten konstituzio auzitegira errekurtsu zuzen baten bidez, hortik aurrera legea nahitaez aplikatu behar zen; baina gaur egun gurean bi ereduekin lotuta dauden bi errekurtsu mota, ditugu konstituzio kontrakotasun zuzena eta baita ere konstituzio kontrakotasun zeharkakoa (konstituzio kontrakotasun arazoa/galdera/auzia... deitutakoa). Konstituzio kontrakotasun zeharkakoa garrantzi handia du nola malgutasun handia ematen dio sistemari zeren eta, garaian ez badu ez gobernua ez parlamentuak errekurtsua planteatzen aukera dago errekurtsua edozein momentuan eta edozein auzian planteatzeko.

a) Konstituzio kontraktotasun errekurtsua edo eskabidea (*Espainiar Konstituzioaren 161.1.a artikulua; KALO*).

- **Auziperatuak izan daitezkeen arauak:** legeak eta legearen indarra duten xedapenak.
- **Eskabidea aurkez dezaketen kideak:** Gobernuko Presidentea (izan ohi da autonomia erkidegoen legeak eramatean dituen konstituzio auzitegiaren aurrera), Herriaren Defendatzailea, gutxienez 50 diputatu, gutxienez 50 senatari, Autonomia Erkidegoetako organo bildu betearazleak (Gobernuak) eta, hala badagokio, horien Biltzarreak (Parlamentuak). Hasieran muga handiak autonomia erkidegoei konstituzio kontraktotasun zuzenak ezartzeko, esaten zen legea/erabakia... zuzenean afektatu behar ziotela, ondoren zuzenean edo zeharka baina afektatu behar ziela; denboraren poderioz mugak kentzen joan ziren eta gaur egun jada ez daude inolako mugarik autonomia erkidegoek konstituzio kontraktotasun zuzenak planteatzeko. Ondorioz zentsu batean malgutasunari buruz hitz egin behar dugu berriz. Kelsen-en ereduaren soilik gobernuak edo parlamentuak ezar dezaketen horrelako errekurtsuak; guztiz mugatua zen Kelsen-en ereduaren. Espainiar konstituzioa da inguruko konstituzioak aztertuz malguena konstituzio kontraktotasun zuzena ezartzeko. Horrek eman dio bizitasuna sistemari.
→ eskabidea aurkezteko ahalmenaren zabaltasuna
- **Eskabidea aurkezteko epea:** 3 hilabete, xedapena argitaratua izan denetik aurrera.
- Bideratzeko (izapidetzeko; prozeduran sartzeko) onartua izan ondoren jakinarazi behar die Gobernuari, Gorte Nagusietako bi Ganberei eta, kasu, auziperatutako legea sortu duen Autonomia Erkidegoetako Gobernuari eta Parlamentuari, eta aukera eman behar diete prozesuan ager daitezen eta, nahi badute, egoki irizten dizkien azalpenak egin ditzaten: jakinarazpena jaso eta 15 egunen epean.
- Ondoren, Auzitegiak epaia emango du
Aukera alternatiboa (Gaur egun KALO aldatu egin da eta badago aukera bat batez ere estatuaren eta autonomia erkidegoaren artean liskarrak sortzen direnean):
Estatuko Gobernuak nahiz Autonomia Erkidegoek bederatzita hilabeteko epea izango dute konstituzio-kontraktotasun eskabidea aurkezteko halako baldintzak gertatzen baldin badira:
 - Bien arteko (bitariko) lankidetzaren batzordea biltzen bada, alde batek nahiz besteak eskatuta; (prozedura honen helburua izango da konstituzio kontraktotasun errekurtsu zuzen erretiratzea).
 - Desadostasunak ebazteko negoziazioa hastea erabakitzen badu batzordeak, zeinek aukera emango baitu lege-testua aldatzeko ere. Akordio horretan zehaztu daiteke ere, kasu, legearen suspentsioari dagokiona.

- Konstituzio Auzitegiari jakinarazi behar diote hartutako erabakia legea argitaratua izan eta hiru hilabeteen epearen barruan;
 - Honek ez du inolako eraginik konstituzio-kontrakotasun eskabidea aurkezteko ahalmena duten gainerako organoetan.
- **Kontrol mota zuzena eta abstraktua:** zuzenean aztertzen dira auziperatutako xedapenak eta era abstraktuan, xedapenaren aplikazio zehatzek sortzen dituzten arazoetatik aske. Aldez aurreko *ad quo* auzirik ez dago baizik eta legea sortu eta auzia ematen da, ez da bitarteko auzirik. Legea sortu eta errekurtsioa ematen da aplikatzen hastea itxaron baino lehen. Modu abstraktu batean pentsatu behar da legeak modu konkretu batean izan ahal zitekeen ondorioak.
- Lege baten auziperatzea eta horren eraginkortasuna. Lege bat auziperatzearen ondorioa zango litzateke lege horren zilegitasuna kolokan jartzen dela. Soilik geratuko dira suspendituta konstituzio kontrakotasun zuzenaren bitartez autonomia estatutuak gobernuko presidenteak auziperatzen baditu eta bertan 161.2.artikulua aipatzen baldin badu; beste motatako lege guztiak ez dira suspendituta geldituko nahiz eta auziperatuak izan.
 - Printzipio orokorra: auziperatuak diren lege-xedapenak ez dira geldiarazten edo suspenditzen.
 - Estatuko Gobernuak Autonomia Erkidegoetako lege-xedapenak auziperatzen dituztenean, Espainiar Konstituzioaren 161.2 artikulua aipatzen baldin badu, *ex lege* geldiarazten da, baina Auzitegiak “berretsi edo ezetsi beharko du..., gehienez bost hilabeteko epean”. Hau da, autonomietako xedapen edo erabakiak geldiarazita geldituko dira.
 - Konstituzio-kontrakotasun eskabidean ematen diren epaien eragina: legean izango du eragina epaiak, baina xedapena aplikatuta sortu diren epaiak ez dute galduko auzi epaituaren balioa (deuseztapenaren ondorio *ex nunc*; epaia ematen denetik aurrerako ondorioak). Konstituzio auzitegiak epai bat ematen badu esaten lege baten artikulua bat konstituzioaren kontra dela artikulua hori deuseztatua geldituko da; baina zer gertatzen da suspendituta egon ez den denboran epaia eman arte lege horren aplikazio izan duen eragina? Ez du izango inolako eraginik. Salbuespena: zigor xedapenak konstituzioaren aurkakoak adieraziak izan direnean eta horrek zigorra arinduko zuenean. Adibidez: demagun kode penaleko artikuluren bat deuseztatu duela konstituzio auzitegia eta norbait epaitua eta zigortua izan dela artikulua horren bidez, hor aurkituko dugu salbuespena; baina

bakarrik hor emango da salbuespena beste guztietan ez dago salbuespenik.

Ex nunc: “hemendik aurrera” esan nahi du, aditzera eramaten du legean, kontratuan... ez dagoela atzeraeginik bere efektuei dagokionez eta hauek hasiko direla zuzentzen disposizioa hasten den unetik aurrera edota disposizioa perfektionatu den unetik aurrera.

Ex tunc: “betidanik” esan nahi du eta badio akto juridikoa, legearen disposizioa edo epaia atzeraegintasanaren efektuak dituela edo jokoan dugun egoera perfektionatua ematen da bere hasieratik.

b) Konstituziokontrakotasun arazoa (*Espainiar Konstituzioaren 163 artikulua*).

- Prozeduraren muina: epaile batek, prozesu batean, uste badu lege maila duen arau batek, auzian ezarri behar duena eta erabakia baldintzatzen duena, Konstituzioaren aurkako izan daitekeela, auzia Konstituzio Auzitegiari igorriko dio. Zeharkako errekurtsioa dela esan ohi da, beste auzi bat *ad quo* behar delako bideratzeko. AEBko sistema eta gurean dagoen desberdintasun bakarra izango litzateke AEBko sistemak edozein epaile erabaki dezakela aplikatu behar den legea konstituzioaren aurkakoa dela eta aplikatu gabe utzi, gurean epaile ohiko batek ezin du horrelakorik egin. AEBko eredia nahiz eta barreiatua izan, epaile guztiek jarraitu behar dute auzitegi gorenak emandako jurisprudentzia. Gurean gerta ezin daitekeena da epaile arrunt batek indarrean dagoen lege bat aplikatu gabe utzi edo esan lege horrek konstituzioaren aurkakoa dela, horretarako konstituzio auzitegiak baitu monopolioa. Europako zuzenbidea aplikatu behar denean nola batasuneko zuzenbidea estatuetako epaileek aplikatzen dute, epaileek zalantza badute batasunaren arau bat eta estatuko bat haien artean talka egin ahal dutela epaile horrek igorri behar dio auzia eta beraz zeharkako errekurtsioa da, Europar Batasuneko justizia auzitegiari. Bi motatako arauak daude Europar Batasuneko zuzenbidean: Jatorrizko zuzenbidea (Itunak edo tratatuak) eta zuzenbide eratorria (zuzentarauak, erregelamenduak, erabakiak...). Konstituzio auzitegiak ere ikusten badu barneko arau bat aztertzean europar batasuneko arau baten aurka egin ahal duela ikusten badu Europar Batasuneko justizia auzitegiari epaiketa aurreko auzia edo galdera igorri behar dio. Konstituzio auzitegiak monopolioa izango dute esateko barneko arau bat konstituzioaren aurka doan edo ez.
- Epailearen usteak bere barrutik sortuak izan daitezke edo alderdi batek aurkeztuta; baina, bide batetik zein bestetik, epaileak berak uste izan behar du auzian ezarri edo aplikatu behar duen legea Konstituzioaren aurkakoa dela; eta erabakia epailearena da, haren arabera.

- Epailleak edo auzitegiak arazoa igorri behar du jatorrizko auzia amaitu eta epaia emateko garaian dagoenean
 - Epaille arruntaren igorpenak ez du ondorio geldiarazte-koak: auzia aurrera jarraitu beharko luke, baina horrek arazoak sortzen ditu → Lege Organikoaren konponbidea.
 - Epaille arruntak edo ohikoak ezin du deuseztatu bere ustez Konstituzioaren aurka doan lege xedapen bat.
 - Konstituzio Auzitegiak du, bakarrik, lege xedapen bat deuseztatzeko ahalmena, monopolio gisa, aipatu xedapena Konstituzioaren aurkakoa denean
- **Konstituziokontrakotasun arazoak bete beharreko ezaugarriak edo baldintzak:**
 - Zehaztu behar du, haren ustez, Konstituzioaren kontrakoa den legea edo lege indarreko xedapena eta urratzen omen duen Konstituzioaren xedapena; zehaztu behar du zenbateraino baldintzatzen duen auziperatutako legeak edo xedapenak auzian hartu beharreko erabakia.
 - Epailleak, arazoa igorri aurretik, auzian agertutako alderdiei entzun beharko die, eta baita Fiskalari ere; 10 eguneko epea emango die egoki irizten diotena azal dezaten.
 - Azalpenak jaso eta hiru egunen epean erabakiko du epailleak zer egin.
 - Epaillearen erabakiaren kontra ez da inolako errekurtsorik izango; baina goragoko epai-mailetan berriro planteatu daiteke.
 - Konstituziokontrakotasun arazoa igortzeak jatorrizko auzia geldiaraziko du, behinik behin, Konstituzio Auzitegiak haren bideragarritasunaz erabaki arte; onartuko balu, geldiarazita jarraituko du, Konstituzio Auzitegiak epaia behin-betiko eman arte (KALO 35.3 art.).
 - Konstituzio Auzitegiak bideratzeko onartzen duenean, Estatuko Aldizkari Ofizialean emango du horren berri 15 eguneko epean; jatorrizko auzian agertu diren alderdiek aukera izango dute beste 15 eguneko epean Konstituzio Auzitegiaren aurrean agertzeko, haren aurreko konstituziokontrakotasun-prozesuan parte hartzeko.
 - Konstituzio Auzitegiak arazoa onartua izan denaren berri emango die Gorte Nagusietako Ganberei, Fiskal Nagusiari, Gobernuari eta, arazoa Autonomia Erkidego batek sortutako legearen kontra aurkeztua izan bada, haren Gobernuari eta Biltzarrari
 - 15 eguneko epea dute auzitegiaren aurrean agertzeko eta azalpenak emateko.

- Konstituziokontrakotasun auzietan emandako epaiaren izaera eta ondorioak
 - Arazo epaituaren balioa izango dute; herri aginte guztiak lotuko ditu eta ondorio *erga omnes* izango ditu Estatuko Aldizkari Ofizialean iragarria denetik Aurrera. Ondorio *erga omnes* (jende guztiaren gainean eragina dituzten ondorioak).
 - Konstituzio-kontrakotasun errekurtsoren eta Toki-autonomiaren babesaren inguruko gatazken kasuetan, errekurtsoa arbuiatzen duen epaiak galaraziko du, halako edozein bideetatik, arazoa berriro aurkeztea xedapen beraren kontra eta urraketa beragatik
 - Xedapenen bat Konstituzioaren kontrakoa dela adierazten duen epaiak, xedapen horren deuseztasuna adieraziko du eta, era berean, deuseztatutako xedapenak lege bereko beste batzuetan eragina badu, azken xedapen hauena ere.
 - Konstituzio Auzitegiak Konstituzioaren edozein xedapenetan oinarri dezake konstituzio-kontrakotasunaren erabakia, auzian aipatua izan edo ez.
 - Konstituziokontrakoa izateagatik xedapena deusezten duen epaiak ez du aukerarik ematen aipatutako xedapena aplikatu duten prozesuak berriro zabaltzea, halako prozesuetan, jada, behin-betiko epaia dagoenean (arazo epaituaren egoera)
 - ⇒ ondorio *ex nunc*; salbu, zigorrak ezartzen dituzten epaien kasuetan, zigorra arintzea ekarriko balu.

Kontrol mota zeharkakoa eta zehatza: auzi zehatz baten zehar aztertzen dira auziperatutako xedapenak eta era zehatzean, xedapenak jatorrizko auzian duen aplikaziok sortzen dituen ondorioen arabera.

Konstituzio-kontrakotasun epaiketetan emandako epaiak legean izango du eragina, baina xedapena aplikatuta sortu diren epaiek ez dute galduko auzi epaituaren balioa (deuseztapenaren ondorio *ex nunc*). Salbuespena: zigor xedapenak konstituzioaren aurkakoak adieraziak izan direnean eta horrek zigorra arinduko zuenean.

Orain arte ikusi dugu lege indarra duten arauen konstituzio kontrakotasun errekurtsuak.

c) Babes-errekurtsoa edo eskabidea (*Espaniar Konstituzioaren 161.1,b eta 53.2 artikulua*).

Babes-errekurtsoa ez du zuzenean lege indarra duten arauen konstituzio kontrakotasun errekurtsoa gauzatzen baina “erabaki administratibo” baten ondorioz oinarritzko eskubide eta askatasunen bat urratu bada konstituzio kontrakotasuna gauzatzeko bidea zabaltzen da. (erabaki administratiboak= parlamentuak hartutako erabakiak...).

Oinarritzko eskubideen eta askatasunen babesa, epaile ohikoen esku, oinarri gisa.

Epaile ohikoek egoki babestu ez dutenean oinarrizko eskubide edo askatasunen bat, beti epai baten kontra izango da babes errekurtsua; epaileen aurrean babes edukitzeko eskubidea urratu egin denean, epaileak lege prozesalak aplikatzean eskubide eta askatasunen bat urratzean hauen aplikazioarekin (adibidez frogak bat ez onartzean); (24.art.). Ondo bereizi behar ditugu bi egoera horiek nola helegiteak aurkezteko epea aldatzen baita, egoera arruntetan 20 eguneko epea dugu eta bigarren egoeran aldiz, 30 egun.

Oinarrizko eskubideen babes berezia, Konstituzio Auzitegiaren aurrean: Babes-errekurtsua edo eskabidea

Babestuak diren eskubideak: berdintasuna (14. art.) bigarren kapituluko lehen atalean zehaztutako eskubideak (15.-29.art.) eta kontzientzia eragozpenaren eskubidea (30. art.).

Auziperatu daitezkeen eskubideen urradurak: eskatzailearen ustetan, herri aginteen egiteak aipatutako eskubide eta askatasunak urratzen dituztenean (aginte betearazlearenak; administrazioarenak, barne), biltzarrenak eta epaileenak (epaiak).

Beti epaile arrunten aurrean saiatu behar da babes eskuratzen.

Babes-errekurtsuan bakarrik eska daiteke urratuta izan omen den eskubidea babestua izan dadin, berriro osorik erabili edo gozatu ahal izateko.

Oinarrizko eskubideak eta askatasunak ezartzen dituzten Konstituzio-xedapenak izan daitezke, bakarrik, babes-errekurtsuaren oinarri

Bete beharreko baldintza: epaile ohikoen aurrean prozesu guztiek agortuak izan behar dute.

Fiskalari deituko zaio babes-errekurtsu guztietan, legezkotasuna, herritarren eskubideak eta askatasunak, eta legeek ezartzen duten interes publikoa babes dezan.

Eskubidearen ustezko urradura epaile edo auzitegi batek egin omen duenean, babes-eskabidea aurkezteko betebeharreko baldintzak:

Urraduraren kontra agertzeko prozesuaren barneko aukera guztiak erabiliak izatea

Eskubidearen urraduraren sorburu berehalakoa eta zuzena epailearen edo auzitegiaren egite edo ez-egite bat izatea

Auzian urradura salatua izatea, era egokian, horretarako aukerarik izan denean.

Eskabidea aurkezteko epea: orokorrean, 20 egunekoa (salbuespena: Biltzarreen egiteen aurrean, hiru hilabetekoa)

Eskubidearen ustezko urradura epaile edo auzitegi batek egiten duenean: 30 eguneko epea, epailearen erabakiaren berri jasotzen denetik aurrera (*Epea hasiko da administrazioaren erabakiaren notifikazioa jasotzen den hurrengo egunean; hau da notifikazioa 20an jasotzen bada epea 21ean hasiko da*).

Eskabidea aurkez dezaketen kideak: zuzenean ukitua den gizakia, Herriaren Defendatzailea eta Fiskala.

Babes-errekurtsoa ebazteko eskumena: Arau gisa Konstituzio Auzitegiaren Gelak izango dira, baina osoko bilkurak berarentzat eska dezake eskumena nahi duen guztietan (KALOn 10.1,n.art.).

Bakarrik lege antolamendu bakan batzuetan modu subsidiarioetan ezartzen da konstituzio auzitegiaren aurrean babes eskabidea eta hau da epaile guztiek betebeharrutena babes egokia bermatzea hain zuzen. Oinarrizko eskubideen edukia finkatzeko erabiltzen ditu konstituzio auzitegiak babes eskabideak; konstituzioa finkatzeko bide prozesala da.

Babesa helegitea eta konstituziotasunezko kontrola: babes helegitearen bidez, Konstituzio Auzitegiak finkatzen du Konstituzioak aldarrikatzen dituen eskubideen edukia.

- Konstituzio Babes-errekurtsoaren jardunbidea:

- Konstituzio Auzitegiko Gelei dagozkie Babes-errekurtsoen ardurak, haiek bideratzea eta ebaztea.
- Eskaria aurkeztu behar da; horretan azaldu behar dira, argi eta zehatz, urratu izan omen den eskubidea, hura urratu omen duen egitatea, urratua izan omen den Konstituzio-xedapena, eskubidea berreskuratzeko eskatzen den babesa eta justifikatu beharko du konstituzio arloan duen eragin edo garrantzi berezia. (KALOn 41. eta 50.1,b art.). Gaur egun milaka dira Konstituzio Auzitegiak oinarrizko eskubide eta askatasunei buruz eman dituen epaiak, hau gehitu zen, hau da KALO aldatu egin zen nola konstituzio auzitegiak lanez gainezka dago ari egindako babes errekurtsuak direla eta, horrela hemen mugatu egin da babes eskabidea konstituzio auzitegira heltzea (eragin konstituzional ez duen neurrian auzitegi konstituzionalak atzera bota dezake errekurtsua); gaur egun arte konstituzio auzitegiak oso babes errekurtsu gutxi bota ditu atzera. Baldin bada eskubide bat zein horren inguruan jurisprudenzia ugari dagoela konstituzio auzitegia atzera botatzen du, baina zalantza minimoa izanda onartua izan da orain arte eta horrek esan nahi du konstituzio auzitegiak gehiago mugatu behar duela babes eskubideen hartzea.
- Espresuki erabaki behar du Gelaren Sailak errekurtsua onartua den edo ez bideratua izateko; aho batez erabakitzen ez badu, Gelari igorriko zaio erabaki dezan.
- Errekurtsoaren bideragarritasuna arbuiatzen duen erabakiak zehaztu beharko du zein den betetzen ez den betebeharra.
- Babes-errekurtsoan emandako epaiak eskubidearen babesa emango du edo ukatuko du.

- **Babesa ematen duen epaiak halako zerbait erabakiko du:**
 - a) eskubidea urratu duen erabakia, egintza edo ebazpena deuseztatuko du.
 - b) eskubidea aitortzea.
 - c) eskatzaileari eskubidea osorik itzultzea eta, beharrezkoa bada, hura babesteko neurriak hartzea.

- **Babes helegitea eta barneko konstituziozkotasun arazoa edo galdera** (Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoaren 55.2 artikulua):

- Konstituzioak aldarrikatzen duen eskubidearen urradura lege baten aplikazio zuzenaren ondorioa denean, Gelak igorri behar dio arazoa Osoko Bilkurari, honek azter dezan eskubidearen urradura ekarri duen legea Konstituzioaren aurkakoa den ala ez; eta hala bada, horren deuseztapena erabaki dezan.
- Auzia igorriko dio epaia eman gabe
 - lege xedapen baten deuseztapena bakarrik Osoko Bilkurak egin dezake.

Babes eskabidea bada bakarrik egitateen kontrako errekurtsio bat. Babes eskabidearen bidez lege indarra duen arau bat ezin deuseztatu den neurrian osoko bilkurari igorri beharko dio kasua beste prozesu baten bidez (hain zuzen, lege indarra duen arau baten konstituziokontrakotasuna gauzatzea). Prozedurarekin lotutako arazo bat da, babes eskabidea ez delako prozedura egokia lege indarra duten arauen konstituziokontrakotasuna gauzatzeko hori egin behar delako horrelako helburua duten prozedurekin.

d) Nazioarteko itunen konstituziotasun kontrola (Espainiar Konstituzioaren 95 art.)

Zergatik da hain garrantzitsua nazioarteko itunen alde zuzeneko kontrola ezartzea? **Espainiar konstituzioaren 96.artikulua:** *“Baliozko moduan egindako nazioarteko tratatuak, Espainian ofizialki argitaratutakoan, barne-ordenamenduaren parte izango dira. Ez dago haietako xedapenak derogatu, aldatu edo aldi baterako ahalgabetzerik, ez bada tratatuetan beretan aurreikusitako moduan edo nazioarteko zuzenbidearen arau orokorrekin bat etorritik”.*

- Nazioarteko itun batek Konstituzioaren kontrako xedapenak baditu, berretsi ahal izateko, alde zuzeneko Konstituzioa eraberritu beharko da

- Gobernuak eta Gorteetako edozein Ganberak eska diezaiotke Konstituzio Auzitegiari azter dezan halako kontraesanik dagoen ala ez

- Konstituzio Auzitegiaren “aholku” eskumena: bide honetatik erabakitakoa ez da Epaia, Adierazpena baizik; baina guztiak lotuko ditu (lotura-indarra izango du, beraz, juridikoki eraginkorra).
- Indarrean sartu baino lehenago gauzatzen den kontrola

Erabateko eragin juridikoa izango du auzitegi konstituzionalak egindako adierazpen guztiak ere, hau da, konstituzio auzitegiak esaten badu nazioarteko tratatu bat konstituzioaren aurkakoa dela ezinezkoa izango da hau sinatu.

Bakarrik gehiengo parlamentario batek bakarrik jar dezake martxan prozedura hau hori dela eta, begi bistakoa da honek ahultasun bat dela.

e) Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen arteko eskumen-gatazkak (Espainiar Konstituzioaren 161.1,c art.)

Horrelako gatazkak hainbat arlotan eman daitezke. Askotan gertatzen da autonomia erkidego batek lege bat sortzea eta estatuak hauek auziperatzea (ikuspegi prozesal batetik horri ez diogu eskumen gatazka esaten).

Eskumen gatazka deitua izango dira lege indarririk ez duten erabaki edo arauen bidez sortutako eskumen gatazkak; aldiz legeen bidez sortutako eskumen gatazkak ez dira prozesu honetatik bideratuak.

Beraz prozedura gisa estatuaren eta autonomia erkidegoen arteko eskumen gatazka izango dira soilik bata bestearen eskumenen eremuan sartzen denean arau erregelamentario edo erabaki administratibo baten bidez; eskumen gatazkak soilik izango dira lege indarririk ez duten arauen bidez sortutakoak; erabakiaren izaera juridikoa erregelamentarioa izan daiteke soilik.

. Estatuko Gobernuak edo Autonomia Erkidegoetako eskabidea aurkez diezaiokete Konstituzio Auzitegiari haien eskumenetako bat urratua izan denean.

. Eskumen gatazka positibo eta negatiboak

. Bi hilabeteko epea.

. Lege indarra ez duen xedapen, erabaki edo egite baten aurka.

. Aldez aurretik eskakizuna igorri beharko dio halako xedapena edo erabakia bertan behera utz dezan bi hilabetetako epean.

. Xedapena edo erabakia sortu zuen Gobernuak erantzun beharko hilabete bateko epean eskakizuna onartzen edo gaitzesten duen

. Erantzuna jaso eta hilabete bateko epean eskumen-gatazka aurkez lezake Konstituzio Auzitegiaren aurrean

. Eskumen-gatazka aurkezten duena Estatuko Gobernuak denean eta Konstituzioaren 161.2 artikulua aipatzen badu, xedapena edo erabakia geldiaraziko da

- Konstituziotasunaren neurria Konstituzioak ematen du; baina, baita, horrekin batera, haren mende kokatzen diren beste arau batzuk ere: horiek guztiek osatzen dute konstituziotasun-blokea.

→ Konstituziotasunaz kontrolaturik izango diren arau batzuk eta konstituziotasun-blokea osatzen duten arau batzuk maila berekoak dira batzuk eta besteak.

➤ Sistemaren malgutasuna; Konstituzioaren betebeharrak lege mailako iturburuei zabaldu izatea.

➤ Konstituziotasuna *berrinterpretatzeko* edo *berzehazteko* aukera zabalik izatea.

- Izaera desberdineko arauak osatzen dute konstituziotasun-blokea (Autonomia Estatutuek, Parlamentuko Araudiek, Konstituzioaren 150 artikuluan zehazten diren legeek).

- Ezaugarri bera dute guztiek: sortzeari buruzko arauak dira konstituzioatasun-blokea osatzen dutenak, gainerako beste batzuen baliotasuna argitzen dutenak
→ edukiari dagokionez, Konstituzio-xedapenei dagokien betekizuna dute, baina konstituzio-xedapenen mende kokatzen diren arauak dira konstituziotasun-blokea osatzen dutenak

f) Autonomia-Estatutuen alde z aurreko konstituzio-kontrakotasun kontrola (KALO 79 art.)

. Konstituzio-kontrakotasun eskabidearen ezaugarri berberak. Autonomia Erkidegoko Parlamentuak proposatutako Proiektuaren kontrakoa.

. Alde z aurreko eskabidea: arazoak. Ezarri egin zen halako eskabidea Lege Organikoen aurrean, gero kendu egin zena.

. Hiru eguneko epea, proiektua Gorte Nagusietako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta gero.

. Bideratzeko tramite guztiak geldiarazten dira.

Izan dira urteak Konstituzio Auzitegiak oso atzeratuta zegoen eta 4-5 urte beharrezkoak zituen epaiak aurrera ateratzeko. Gobernu batek gehiengo absolutua parlamentuan aprobetxatzen zuen gehiengo absolutua zuela, gustukoak zituen gehiengo absolutuak aurrera ateratzeko; gehiengo absolutuko legislatura baten ondoren ez da inoiz beste bat eman baina hurrengo legislaturan gehiengo politikoa aldatzen bazen gehiengo horrek nahiz eta indarra ez izan lege organikoak aldatzeko errekurtsioa planteatzen zituzten legea geldiarazteko eta konstituzio auzitegiak 4-5 urte beharrezkoak zituenez epaiak emateko beste legislatura bat ailegatu zen eta gehiengo politikoa aldatzea oraindik ez ziren indarrean sartu ezta ere epaia eman; hori dela eta esaten zen bide horretatik konstituzio auzitegia 3.ganbera parlamentarioa zela. Berrito sartu da modu mugatu batean hau da, soilik autonomia estatutuen aurrean soilik planteatu dezake hau. Alde z aurreko kontrol hau ezarri da konstituzio auzitegiak erabakitzeko ea autonomia estatutuak konstituzioarekin bat datozen edota konstituzioaren kontra doazen jakiteko erreferenduma egin aurretik.

g) Autonomia-Erkidegoek sortutako lege indarrik ez duten xedapenen eta erabakien auziperatzea. *Spainiar Konstituzioaren 161.2 artikuluan ezarritakoa (KALO V. Titulua).*

. Autonomia Erkidegoek sortutako lege indarrik ez duten xedapenak eta erabakiak ere auziperatuak izan daitezke KA-aren aurrean

. Bi hilabeteko epean, ofizialki iragarriak izan direnetik aurrera.

. Konstituzio-kontrakotasun eskabideari dagokion prozedura berbera erabiliko da.

. Konstituzio kontrakotasun errekursoan eta eskumenen gatazketan estatuko gobernuak baldin bada horrelako errekurtoa aurkezten duena autonomia erkidego baten erabaki edo xedapenen aurka halako legea, xedea edo erabakia geldiarazita gelditua da, horrela interpretatu behar da 161.2.artikuluak aipatzen dena 161.1.artikuluak aipatzen diren proposamenak auziperatuak direnean geldiaraita geldituko direla. Aipatutako prozeduren barnean berezitasun bat; lege organikoak aldiz berezko prozedura bat sortu du, bide honetatik auziperatuak izan daitezkeela lehen aipatutako prozeduren bidez ezin auziperatuak izan zitezkeen prozedurak.

Artikulu horretan gertatzen zen autonomia erkidegoko xedapenak edo erabakiak geldituta geratzen zirela; gobernuak auziperatzen bazuen autonomia erkidego baten lege bat konstituzio kontrakotasun helegitearen bitartez hori momentuan geldiarazita gelditzen zen, lege organikoak hemen esaten du autonomia erkidego batek sortutako legea edo xedapena zuzenean auziperatua izan daitekeela eta zuzenean *ex lege* geldituko zen eta urtetan prozedura berezi hau erabili gabe izan da. Auziperatuak izan daitezke soilik prozedura honen bidez, konstituzioan ez dago beste modu bat erabaki politikoak auziperatzeko. Oso bide nahasgarria eta etortzen ari diren ondorioak nahasgarriagoak izaten ari dira. Prozedura honek jada aurkitu du bere edukia beste batzuk pentsatzen zutenaren aurka.

. Lege indarrak ez duen xedapena edo erabakia geldiaraziko da, eskabidea bideratua izateko onartua denetik aurrera

. Auzitegiak espresuki erabaki beharko du, bost hilabete igaro baino lehen, halako xedapena edo erabakia geldiarazita jarraituko duen edo suspentsioa altxatua izango den.

h) Lurralde Historikoen sortutako arau fiskalen kontrako eskabidea (KALO 5. xedapen gehigarria)

. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoen sortutako arau fiskalen kontrako eskabideak Konstituzio Auzitegiak erabakiko ditu. Lurralde historikoen sortutako foru arau fiskalak ez dira soilik arau fiskalak horretarako lege organikoa aldatua izan zen. Halako foru arauak ezin dira auziperatu auzitegi soilen aurrean eta horretarako monopolioa konstituzio auzitegiak du; neurri hau oso kritikatu izan da.

. Konstituzio-kontrakotasun eskabideari edo arazoari dagozkion arauak aplikatuko dira, kasuaren arabera.

i) Estatuaren konstituzio-organoen arteko gatazkak (KALO 73. art. eta hurrengoak)

- . Gobernua, Diputatuen Kongresua, Senatua eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia: hauen arteko eskumen-gatazkak
- . Bestearen eskumenak bidegabeki hartu dituela uste badu
- . Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez
- . Eskakizuna igorri behar dio bertan behera utz dezan, hilabete baten barruan
- . Hilabete bateko epea gatazka aurkezteko

- Konstituziotasun-blokea

- Konstituziotasunaren neurria Konstituzioak ematen du; baina, baita, horrekin batera, haren mende kokatzen diren beste arau batzuk ere: horiek guztiek osatzen dute konstituziotasun-blokea
 - konstituziotasunaz kontrolaturik izango diren arau batzuk eta konstituziotasun-blokea osatzen duten arau batzuk maila berekoak dira batzuk eta besteak
 - . Sistemaren malgutasuna; Konstituzioaren betebeharrak lege mailako iturburuei zabaldu izatea.
 - . Konstituziotasuna *berrinterpretatzeko* edo *berzehazteko* aukera zabalik izatea.
 - . Izaera desberdineko arauak osatzen dute konstituzioatasun-blokea (Autonomia Estatutuek, Parlamentuko Araudiek, Konstituzioaren 150 artikuluan zehazten diren legeek).
- Ezaugarri bera dute guztiek: sortzeari buruzko arauak dira konstituzioatasun-blokea osatzen dutenak, gainerako beste batzuen baliotasuna argitzen dutenak.
 - Edukiari dagokionez, Konstituzio-xedapenei dagokien betekizuna dute, baina konstituzio-xedapenen mende kokatzen diren arauak dira konstituziotasun-blokea osatzen dutenak.